

# Ariketa bat: June Jordanen itzultzaile zuria

ANE GARCIA LOPEZ

Batzuetan, unerik egokiena hautatzen dugu gogoratzeko, guk jakin gabe ere. Izan ere, ekintza edo jardun baten gainean dugun ikuspegia aldatu egiten da denboran, eta, beraz, beti dago zer begiratu berriz, beti dago analisirako geruza berririk, zain. Memoria bat erregistratzeko hautatzen dugun uneak, beraz, erabat baldintzatzen du jardun horren gaineko begirada zein izango den. Ni neu 2021eko udaberriaren atarian hastekoa nintzen June Jordan itzultzeari buruzko memoria egiten. Proposamena jaso nuenean, oso artikulu zuzen eta ohikoa irudikatu nuen; memoria ariketa simple bat, bi-zipenak, zalantzak, arazoak eta abar jasoko zituen. Une honetan, bost urte pasatu dira lehen poema irakurri nionetik, lau itzultzen hasi nintzenetik eta urtebete Munduko Poesia Kaierak bilduman argitaratu zenetik. Era

berean, bi aste eskas pasatu dira Amanda Gorman afroamerikar poetaren itzultzaile zurien inguruko aferak nazioarteko eztabaida piztu zuenetik,<sup>1</sup> eta pertsona zuriek jende arrazializatuaren obrak itzultzea ezbaian jarri zenetik. Hori horrela, auzi horren inguruko lanketa bat egitea lehenetsi dut, eta memoria-ariketa behar zuena neure ziritasunari erreparatzeko gogoeta-ariketa bihurtu da. Itzultzaile zuri eta mendebaldarrok jopuntuan jarri gaitu Gorman aferak, eta itu horren erditik idatzitako testu pertsonala izango da honako hau, beraz. Halaber, June Jordanen itzulpena zeharka agertuko da han-hemenka. Aitortzen dut neure buruari *zuri* adjektiboa publikoki jartzen diodan lehen aldia dela. Pribilegio kontuak.

Artikulu honetan, bi atal bereiziko ditut. Lehenik, Gorman auziaren inguruko zen-

---

1. Auziaren laburpen motza: 2021eko urtarrilean, Amanda Gorman afroamerikar poeta gazteak nazioarteko sona eskuratu zuen goizetik gauera, Joe Biden-ek presidente kargua hartu zuen egunean *The Hill We Climb* poema errezitatu zuela-eta. Bat-bateko fama horren ondorioz, hainbat itzulpen prestatzen ari dira une honetan hainbat herrialdetan, tartean Herbehereetan. 2021eko martxoaren 1ean nazioarteko hainbat egunkarik esan zuten, haren lana itzultzeko enkargua jaso zuen Marieke Lucas Rijneveld holandar poetak uko egin zion lanari, egunkari nahiz sareetan eztabaida piztu baitzen, itzultzaile zuri batek Gormanen lana itzuliko zuelako. Handik gutxira, Victor Obiols itzultzaile katalanari betoa ezarri zion *Univers* etxeak, itzulpen lanetan ari zela, «profil desagokia» zuela-eta. Gerora, Obiolsen iruzkin desagokiak egin ditu auziaren inguruan, tartean, hurrengo itzulpena egin aurretik betuna erosiko duela esanez.

bait gogoeta partekatu nahi nituzke, aferak azaleratu dituen hainbat ikuspegitan sakontze aldera. Gaiak har dezakeen luze-zabalera ikusita, eta hartan behar bezala sakontzeko honek askoz ere lan luzeagoa behar lukeenez, zertzelada orokor batzuk baino ez ditut emango, lan honen helburua, ondorio erabatekoak eskaintzea baino gehiago, eztabaida zabaltzea baita. Bigarrenik, Euskal Herrira ekarriko dut eztabaida, arrazarena euskarazko itzultzaileontzat ezin saihestuzko gaia ere badelako. Izan ere, susmoa dut euskarazko itzulpen sistemaren ezaugarri espezifikoak direla-eta, eta hizkuntza eta kultura gutxitua garen aldetik, alboratu egin dugula arrazaren auzia orain arte, akaso gure txikitetasunak (eta itzultzaile arrazializaturik ez dagoelako usteak) salbuesten gaituelakoan. Zehaztu nahi nuke ariketa honen asmoa ez dela inondik inora pertsona arrazializatuenez hitz egitea, ez baitagokit niri paper hori; aitzitik, pertsona arrazializatu baten literatur lana itzuli duen emakume zuri bat naizen aldetik, neure zurtasunari erreparatu eta jardunbideak zalantzan jartzea du xede testu honek. Ohartzen naiz *arrazializatu* etiketak errealitate oso desberdinak jasotzen dituela. Nire asmoa ez da termino hori erabiliz aniztasun hori ezkutatu edo homogeneizatea; aitzitik, *mendebaldar* edo/eta *zuri* etiketetatik at geratzen den hori izendatzeko asmoz darabilt testu honetan.

### Itzulpengintza eta identitatea(k)

Ezbairik gabe, Amanda Gormanen auziak erabat baldintzatu dit ariketa hau, oso atzera egitera behartu bainau. Ez June Jordan ezagutu nuen unera, ez hura itzultzen hasi

nintzenekora. Are atzerago. Itzultzen hasi nintzen unera eraman nau. Are atzerago. Itzultzaile bat zer den galdetzera eraman nau ezinbestean, hasieraren hasierara. Funtzaren funtsera. Izan ere, auzi honen harira, itzultzaileok, identitaterik gabeko zomorro ikusezin horiek, neoizko bihurtu dira/gara bat-batean; seinalagarriak, ikusgarriak. *Flash*. Eta, uste orokorraren arabera, itzultzaile bati erreparatzen zaionean, ez bada sariren bat jaso duelako, *malo*.

Beraz, memoria egiteko, galderarik sinpleenari erantzun behar izan diot lehenik: zer da itzultzaile bat? Azalpenik sinple, klasiko eta lurtarra da hizkuntza batetik beste hizkuntza batera elementu testualak garraiatzen dituen delat itzultzailea (gutxi gorabehera). Noski, jakina da testu horiek karga kultural eta emozional konkretu bat izaten dutela, nork idatzi dituen, zer unetan idatzi dituen, zer idatzi duen... Eta, beraz, horiek ere garraiatzen dituela itzultzaileak, modu batean edo bestean. Itzultzaileak bitartekariak gara. *Zubiak* garelara esatea gustatzen zaigu. Hor gaude, baina ez dugu identitaterik, nortasunik azaldu behar, neutroak gara, testuari eta idazleari emanda gaude, haietzako egiten dugu lan: jendeari ulertarazteko orain arte iritsi ezin duten hori, munduaren beste zatitxo bat itzultzeko irakurleari, hizkuntzaren eta kulturaren horma pertikaz saltatuta. Jardunbide ederra da inondik ere: hazi bat hartu eta beste lur batean landatuko bagenu bezala da; ekintza txiki baina ederra. Xaloa. Ikusezina. Gardena.

Edo hori pentsatu nahi genuke, ezta?

Zeren, noski, ezer ez da horren sinplea. Itzultzailea ZER den galdetuz gero soilik, Gorman aferak harrotutako hautsek ezdeus

irudi dezakete, mundu postmodernoaren kapritxo bat. Kontua da zer-da-itzultzaile-bat galderaren atzetik datozela NORK itzultzen duen, NORK itzultzen duen ZER, NORK itzultzen dion ZER NORI. NORK itzultzen dion ZER NORI NOLA. NORK itzultzen duen ZER NORI NOLA eta ZERGATIK. NORI eskatzen dioten argitaletxeek ZER itzultzeko ZERGATIK. Konplexutasuna hartzen ari da kontua, eta erantzun manikeoak ematea gero eta zailagoa da. Alde horretatik, María Reimóndez-en «Itsasargiak iluntasunean. Ideologia eta itzulpengintza: ikuspegi feministak eta postkolonialak» artikulua ezin interesgarriagoan (eskerrik asko, Bego Montorio, itzultzeagatik), galdera ederra botatzen du egileak: «Zergatik da hain garrantzitsua, zenbaiten ikuspegitik, itzulpenak ikusezin izan behar duelako ideia irauraraztea?» (Reimóndez, 2013). Berak ederki erantzuten dio galderari artikuluan, baina, hau nire gogoeta-ariketa denez, eragin diezaiodan apur bat buruari (zuek ere egin dezakezue, noski). Reimóndezena bezalako galderak ahoskatzen direnean, itzultzailea gardentasuna galtzen ari da jada. Identitate-ezaugarriak agertzen zaizkio, hazpegiak. Pertsona konkretu bihurtzen da itzultzailea, eta, bat-batean, gizon zuriz betera dago (hein handi batean) itzultzaileon plaza. Tupustean, ageriko bihurtzen da itzulpen eta literatur sistemek eta argitaletxeek sistema patriarkal, kapitalista eta arrazistaren arauetara egiten dietela. Eta akaso horregatik tematzen dira batzuk itzultzailearen ikusezintasuna betiketozen.

«Ikusezintasun horretatik [...] baino ezin ditu itzultzaileak ideologia nagusiak betikotu eta horien parte bilakatu» (Reimóndez,

2013) dio galiziar egileak, eta nik gehituko nioke ikusezintasun horretatik ideologia nagusiei kontra egiten dienak ezin duela politikoki eragin. Beraz, lehen txartzat jo dugun hori, *flash*, itzultzaileak ikusgarri bihurtzea, *flash*, akaso ez da horren kaltegarria ere.

Gardentasun kontuetan pixka bat luzatu naiz, ordea, eta badut garaia berriro Gorman auziari heltzeko, plano abstraktuan geratuko baikara bestela. Hain zuzen, poeta gaztearen harira sortu den eztabaida ez da berria: generoaren eta sexualitatearen ikuspuntutik ere izan da gizonak emakumeen obrak itzultzeko duten zilegitasuna zalan-tzan jarri duenik, bai eta heterosexual batek LGTBQ+ komunitateko norbaiten lana itzul ote dezakeen auzitan jarri duenik ere. Ildo beretik heldu da orain galdera: afroamerikar emakume gazte baten lana itzul lezake zuri batek?

Aitortu behar dut galdera hori eztarrian trabatu zitzaidala, nik jada egina nuelako lana. Hamaika artikulua irakurri nituen erantzun bila, neure burua non kokatu oso ondo ez nekuela. Lagun itzultzaileekin ere aritu naiz honetaz, eta partekatu ditugu artikulua eta bideoak. Bereziki lagungarria egin zitzaidan Universitat de Vic-Universitat Central de Catalunya-k «Cápsulas de traducción» zikloaren baitan online antolatutako hitzaldi batean Olga Castro akademiko feministak esandakoa, buruan neukan zurrunbiloa ordenatu baitzidan.

Izan ere, galdera horri erantzuteko garaian, eta interpelatuta sentitu naizen aldetik, susmoa izan dut hasieratik bi aldeek bazutela arrazoia, baina zalantza nuen ea nire pribilegio zuritik neure burua are gehiago zuritzen ari ote nintzen. Castroren hitzek

berretsi egiten dute nire susmoa, eta askoz argiago azaltzen dute auziak atzean duen karamila. Hain zuzen, bi kontu bereizi behar ditugu hemen: alde batetik, itzulpen jardunari berari dagokiona, eta, bestetik, sistema arrazista eta patriarkal baten barnean gauzatzen den lana den aldetik, itzulpen sistemetan erreproduzitzen diren eredu matxista eta arrazistena.

Itzulpen jardunari dagokionez, idazle bat itzultzeko haren identitatearen ezaugarriak nahitaez partekatu behar direla dioenak ez du itzulpen jardunaren funtsa ulertu. Hain zuzen, itzultzailea ona bada, eta bere lana behar bezala egingo badu, diferentzia hori identifikatu eta gainditzeko lan egingo du. Beraz, idazlearen identitatearen er-tzen bat partekatzeak edo testuan azaltzen diren gertakariak gertuko izateak BEREZ ez zaitu itzultzaile aproposago bihurtzen. Idazlearen bizipen berdin-berdinak izan ditzakezu, baina idazteko estilo zeharo desberdina, edo beste mundu ikuskera bat, edo dena-delakoa. Gainera, ez duzu norbaitekin identitatea partekatu behar hark idatzi duenarekin modu batean edo bestean identifikatuta sentitzeko. Hori da literaturaren magia. Gure garaikoa, hizkuntzakoa, kulturakoa ez den jendearen bizipen eta istorioekin konektatzen eta enpatizatzen dugula bat-batean, ulertuak sentitzen garela, gainditzeko dugula hizkuntzaren eta identitatearen horma. Gure gisako jendearen lanak soilik irakurri eta itzuliko bagenitu, literaturaren eta itzulpenaren zentzua pikutara joango litzateke, eta, identitate kontuetan gotortuko bagina, askoz pobregoa litzateke itzultzen dugun horren katalogoa.

Nik, alde horretatik, sekulako konexioa sentitu nuen June Jordanen lanarekin: haren idazkera zuzenagatik, haren lerroen politikotasunagatik, haren indarragatik, eta lantzen zituen gaiak erabat erakargarriak zitzaizkidalako. Puntuazio faltaren eraginez itzulpen lana zeharo zaildu bazitzaidan ere, erabat miretsi nion nahasmendua eragiteko gaitasun hori ere. Olga Castrok «aliantza politikoa eta enpatia» aipatzen ditu bere hitzaldian (2021), eta oso identifikatuta sentitu naiz hitz horiekin, erabat definitzen baitute nik June Jordanekin sentitu dudana. Errespetu osoz egindako lana da Munduko Poesia Kaiera hori; uste dut nire zurtasunaz jabetu nintzela itzuli bitartean, nahiz eta akaso esplizituki neure buruari *ez zuri* etiketa jarri (pribilegio kontua, hori ere). Nire ustez, halako iritzia dutenek (nork bere identitate berbera duen hori itzul dezakeela soilik) itzulpena apropiazio gisa ulertzen dute: kultura batek beste bat bereganatzeko egiten den ekintza egoista eta inperialista dela uste dute akaso, eta ez kultura batek, besteekiko miresmenez, bere burua aberastu eta hedatzeko egiten duen ahalegina. Hizkuntza inperialismoaren tresna boteretsua izan dela, eta oraindik ere badela kontuan izanda, justifikatuta egon liteke halako pentsaera. Hala ere, orokorrean, esango nuke itzulpena eta apropiazioa ez doazela elkarren eskutik une historiko honetan.

Auziaren alde hori argituta, baina, eta eztabaida honekin poz-pozik ibiliko diren *zakil-ximelei* argudioak ematea ez denez nire helburua, ezinbestekoa iruditzen zait auziaren bigarren zatiari heltzea. Izan ere, Gormanek itzultzaile zuria edukitzearen aurka egin zuten horiek ere badituzte beren

arrazoiak. Eta ez nolanahikoak, gainera. Hemen ere bitan banatzen da kontua (ez dakit zenbat adar dituen sasitza honek): itzultzaile arrazializatuen ikusgarritasuna eta itzultzailearen izaera ez-neutroa.

Ikusgarritasunari dagokionez, ezin ukatuzkoa da arrazakeriak gizartearen arlo orori eragiten dion heinean eragiten diola itzulpengintzari ere, eta, beraz, itzultzaile arrazializatuek ikusgarritasun gutxiago dutela (ezaguna egiten ote zaigu kontu hau emakume itzultzaileoi?). Puntu honetara helduta, kontuan izan behar dugu Herbehereetan piztu zela eztabaida, eta herrialde horretan holanderaz dakiten eta ondorioz itzulpengintzan edo literatur sorkuntzan diharduten pertsona arrazializatuen ehunekoa altuagoa izango dela Euskal Herriaren aldean, herrialdearen beraren ezaugarri demografiko eta linguistikoak direla medio. Hain zuzen, Janice Deul kazetari eta aktibista arrazializatuak idatzitako artikulua<sup>2</sup> izan zen auzia piztu zuen txinparta, eta berak aipatzen zuena zen Meulenhoff argitaletxeak «aukera galdu» zuela Herbehereetako emakume poeta beltzei ikusgarritasuna emateko (poeta horien zerrenda luze bat ere bazekarren bere artikulua). Kontua ez da gaitasuna, kontua da gaitasuna duen jende horren artean ikusi eta hautatuak izateko pribilegioa normalean berdinek dutela/dugula.

Neutraltasunaren harira, Gorman zuri batek itzultzearen aurka agertu direnen kezketako bat da ea itzultzaile zuriaren galbahe-tik igarota jatorrizko testuak zer bait galduko

ote duen. Ohiko kezka da hori, baina horri kontra egiteko ezin dugu galbahe horren existentzia ukatu, egon badagoelako. Olga Castrok ezin hobeto adierazten du jakin beharrekoa: «Ez dago neutraltasunik itzulpenean, eta, feminismoaren ikuspuntutik, feministok diogu itzulpenean neutraltasuna dagoela esatea patriarkatuaren fikzio bat dela. Pertsona guztiok ditugu geure balioak: emakumeek, gizonek nahiz identitate ez-binarioek. Denok ditugu geure balioak. Ezagutu behar dugu zein diren norberarenak, jakiteko zer egin haiekin. Kontzienteki ez baditugu balio konkretu batzuk aldarrikatzen, litekeena da posizio ideologiko horrek ideologia dominatzaile eta hegemonikoa bereganatzen amaitzea»<sup>3</sup> (2021, minutu tarte honetan: 18:20-59). Ezer gutxi gehitu diezaioket Castrok esandakoari. Argi dago galbahea garela itzultzaileok, onerako eta txarrerako. Asko dira itzultzaileen izaera ez-neutroa agerian jartzen duten adibideak (Bibliatik hasi, eta ia infinituak lirateke hemen izenda ditzakegun itzulpen matxistak, esaterako), eta idazleak esandakoa bere mundu-ikuskeraren filtrotik iragazita moldatu dutenak. Hain zuzen, normalean euren neutraltasuna aldarrikatzen duten horiek izaten dira pribilegiatuenak, bestean *posizio ideologikoak* seinlatu artean haien uste eta jarduna analizatzen ez dutenak. Reimón-dezen hitzetan (2013):

Itzulpen jardun bat «ideologiko» izateaz salatzeak, finean, salaketa egiten duenak ideologia nagusiaren alde egiten duela bai-

---

2. Hemen ingelesezko itzulpen bat: <https://www.javierotaola.com/post/english-translation-janice-deul-s-opinion-piece-about-gorman-rijneveld>

3. Egilearen itzulpena.

no ez du[ela] ezkututzen, ideologia nagusia baita ikusezintasun nahia duen bakarra. Itzulpengintza botere esparru bat dela ulertzeak posible egin ditu bestelako ikerlanak, eta, horien bitartez, agerian gelditu dira «interbentzio eza» edo «normaltasuna» babiliran azaltzen diren zenbait interbentzio.

Artikulu honen puntu honetara iritsita, argi dago denok badugula etxerako lanik, eta are gehiago hau guztia irakurri ostean bere burua oraindik neutrotzat daukanak.

### **Euskarazko itzultzaile zuriak: boteregunearen eta periferiaren artean**

Eztabaida gurera ekarrita, zalantzarik gabe hizkuntzak eta hiztunek hartzen dute pisua, eta hori da bereizgarri nagusia geure burua Herbehereetako kasuekin alderatzean. Baten batek pentsa lezake, hizkuntza gutxitua garen aldetik, ez garela horren pribilegiatuak ere, gure literatura txikia baita, ez baitu ingelesak bezainbesteko helmen-gaitasunik, eta, beraz, pertsona arrazializatuen lanak itzultzerakoan posizio paretсутик ari garela. Reimóndezek ere gogoeta ederra egiten du horren inguruan, Galiziatik. Berak dioenez, itzulpengintzaren inguruko diskurtso tradizionalari «Galizian, bi alor guztiz garrantzitsu gehitu behar zaizkio: itzulpena “normalizatorako” eta “eraikuntza nazionalerako” tresna». Ezbairik gabe, Euskal Herrian ere

aplika litezke bi irizpide horiek. Galiziar egileak, baina, badu erantzunik bi ardatz horientzat. Berak esaten duenez (2013):

Normalizazioaren diskurtsoak defendatzen du hizkuntza, kultura eta, bereziki, literatur sistema «eguneratzeko» eta «geuretzeko» tresna bat dela itzulpena. Baina [...] zer nolako eguneratze eta geuretzea bultzatzen da? Noren balioak sustatzeko? Normalizazioaren izenean, Galizian, onargarrizat jotzen dira testuak, eta are esperientziak, «geuretu» egiten dituzten estrategiak, kontuan hartu gabe komunitate ez hegemoniko bateko kide izan arren geurean ere badaudela zentroak eta periferiak, hegemonia hetero-patriarkaletik hasita, mendebaldeko herritar garen heinean zapaldu egiten ditugun herrien irudi eta esperientzietz jabetzeraino.

Hala ere, horri guzti horri erreparatu ostean, baten batek ere esan lezake: «Euskal Herrian ez badago itzultzaile arrazializatorik, zer egingo dugu? Idazle arrazializatu eta ez-mendebaldarrak itzuli gabe utzi?». Ez, noski. Inork ez digu lan hori debekatu. Baina akaso gure jardunbideek kontzienteagoak beharko dute izan, bai genero, sexualitate eta arraza aferei dagokienez, bai itzultzen ari garenean hartzen ditugun estrategiei dagokienez, baita gure itzulkideei leku egiterakoan ere.<sup>4</sup>

4. Alde horretatik, aipatzekoa iruditzen zait azken urteetako bilakaera euskarazko itzulpengintzan. MPK bilduman bertan ikus daitekeenez, asko dira hautu pertsonalez periferietako autoreak itzuli dituztenak (ez-mendebaldarrak, arrazializatuak, LGBTQ+ komunitatekoak...), eta, hala, interes eta lan hori goraipatzekoa iruditzen zait. Euskaraz halako corpus bat eratzen joatea ezinbestekoa da, gure hizkuntzan ere zapalkuntza horiez aritzeko. Era berean, azpimarratzekoa da euskarazko itzulpengintzaren arloan generoaren gaia landuago dugula arrazarena baino. *Senezen*, aurkitu ditut feminismoari buruzko artikulua; Bakartxo Arrizabalagarena, esaterako. Postkolonialitateari dagokionez, ordea, ia-ia barneratzeke gaude oraindik.

Gure ezaugarri soziolinguitiko eta demografikoez denaz bezainbatean, sasi-ikerketatxo bat egin ostean, egiaztatu dut ez dagoela bazkide arrazializaturik EIZIEN. Unibertsitatean, berriz, EHUN Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi duten pertsona arrazializatuak kopurua oso txikia da, eta horien artean gehienek gaztelaniaz egiten dituzte ikasketak (horrek ez du esan nahi euskaraz ez dakitenik, baina ezin ziur egon). Beraz, ondoriozta dezakegu egotekotan gutxiengoaren gutxiengoa direla itzultzaile arrazializatuak, eta, edonola ere, ez dutela ikusgarritasunik. Baten batek esango du hori ez dela gure errua, oraindik belaunaldi gazteak ez direla heldu unibertsitatera, agian ez zaiela interesatuko itzulpengintza, euskaraz ez dutela horrenbestek egiten... Baliteke hori guztia une honetan egia izatea, baina nik neure buruari egiten diodan galdera ez da hori. Datozen urteetan, ziur asko (eta zorionez) handitu egingo da euskaraz dakiten pertsona arrazializatuak kopurua, askotariko arazoak direla medio, eta espero dut edukiko dugula itzultzaile arrazializaturik. Eta benetako galdera honako hau izango da: egingo al diegu lekuri? Nik neuk neure buruari honako hau bota diot. June Jordan itzultzeko hautagai arrazializaturik balego (akaso bazegoen, eta ez dugu ikusi), utziko al nioke lekua erresistentziarik gabe? Arantzatsua da galdera, negoziarazten didalako nire (itzultzaile) egoaren eta gizarte justiziarren aldeko bulkadaren artean; eta, gainera, nire pribilegio *zuriekin* aurrez aurre jartzan

nau. Izan ere, Gorman auziaren ingurukoak irakurri ahala, ziur asko lehen aldiz egin diot aurre nire zurtasunari itzulpenaren arloan. Susmoa dut euskalduntasuna sarritan ezkutu gisa baliatzen dudala/dugula halako interpelazioen aurrean, eta, hala, ekidin egin dudala/dugula gure iragan kolonialistari aurre egitea. Hizkuntzak ere badu pisurik erresistentzia horretan, eta akaso hor ikusi dut nik justifikatu nire jarduna June Jordanen itzultzaile gisa. Olga Castrok ere aipatzen ditu itzulpen prozesuan ere islatzen direla hizkuntzen arteko botere harremanak, eta aipatzen du ingelesez egiten ez duena ez dela existitzen. Alde horretatik, June Jordanek badu hizkuntzaren «pribilegioa»,<sup>5</sup> nik neuk ez dudana, eta horrek ere nahasi dit burua. Zenbat ertz dituen identitateak, zenbat alderdi menperatzaile eta menperatu, pribilegiatu eta marjinal.

### **Ondoriorik bai?**

Bakar-bakarrik sartu nintzen sasitza honetan, baina, katramilatuta aurkitu dudan beste itzultzailearen batekin elkarrizketa oso interesgarriak izan ostean, aurkitu dut irtenbide erdi-zuzenik. Bidean, pribilegioren bat edo bi onartu behar izan dut, ziurtat nuen usteren bat edo beste berrikusi. June Jordanen itzulpena hartu, eta goitik behera begiratu dut, zantzu arrazistak aurkitzeko beldurrez. Ondorio baino galdera gehiago dut oraindik, ez dizuet gezurrik esango. Baina, hemendik aurrera, norberak

---

5. Kasu honetan, kaxotxen artean diot, kontuan izan behar delako afrikar jatorriko pertsonak beren hizkuntzez gabetu zituztela esklabistek, eta galera horren ondorio dela ingeles hiztunen pribilegioak edukitzea kolonizatutako herrialde askotako jendearentzat.

egin ditzala bere etxerako lanak. Argi dago Gorman auziak hautsak harrotu dituela zer aldatu badagoelako. Eta aldatu beharreko hori betiko munstroa da: sistema arrazista, patriarkal eta kapitalista. Eraldaketa hori ez dago itzultzaileon esku, noski, baina badugu modurik horren aurka egiteko edo, gutxienez, horren alde ez egiteko. Alde horretatik, behar-beharrezkoa dugu itzulpen ikasketetan ikuspegi feminista eta postkoloniala txertatzea, bai gure neutraltasun-erari erreparatzerakoan, bai diskurtso hegemonikoak agerian uzteko estrategiak esplizituki erabiltzean, bai eta ikusgarritasun gutxiago duten kideei lekua egiterakoan ere, idazle nahiz itzultzaileak izan.

Norberaren identitatea jokoan sartzen denean, erresistentziak agertzen dira, baina erresistentzia horiek ez dute zertan arazo izan. Horiek lantzea da gakoa, horrek ematen baitigu aukera mundu justuago baten alde egiteko. June Jordan itzultzea erabaki nuenean, hori neukan buruan: munduko basakeriaren aurka egiten zuen ahots hori euskarara ekartzea.

Antonio Gramsciren aipu bat badago, izugarri gustatzen zaidana:<sup>6</sup>

Lanketa kritikoaren abiapuntua norbera benetan zer den jakitea da: «nork bere bu-

rua ezagutzea» orain arteko prozesu historikoaren produktu gisa, horrek ezin konta ahal arrasto uzten baitu norberarengan, inbentario onurarik gabe. Inbentario hori, beraz, hasieran egin behar da.

Gramsciren hitz horiei ekarpena egin zien Edward Said-ek, eta haien esanahia zabaldu zuen. *Edward Said on Orientalism* dokumentalean zioenez (YouTube plataforman dago ikusgai), inbentario hori osatzea da giza eginbeharririk interesgarriena, norberaren historiari forma emateko ekintza baita. Gaineratu zuen ariketa hori ez dela besterik gabe egin behar, ez eta norberaren historia besterena baino hobea edo okerragoa dela frogatzeko, edota elkarri *biktima* edo *menperatzaile* etiketa jartzeko ere. Saidek zioenez, ariketa horren helburu nagusia beste norbait bilakatzea da, diferentzia ukatu gabe, norberaren identitatean besteak barnebiltzea. Nork bere burua historikoki eta besteekiko harremanean ulertzea (Said, 1998, minutu tarte honetan: 33:18-35:22). Posizio horretatik, agian, gai izango ginateteke albokoa hobeto ulertzeko. Itzulpenean ere ezinbestekoa egiten zait ariketa hori, Castrok aipatutako «aliantza politikoa eta enpatia» (2021) eraiki eta indartzeko.

6. Egilearen itzulpena.



## ERREFERENTZIAK

GRAMSCI, A. (2011). *Prison Notebooks Volume 2*. Columbia University Press.

REIMÓNDEZ, M. (2013). «Itsasargiak iluntasunean. ideologia eta itzulpengintza: ikuspegi feministak eta postkolonialak» [itzul. Bego Montorio], *Senez*, 44, 207-225.

Bideoak:

CASTRO, O. (2021). «Olga Castro – Caterina Riba, 23 de marzo 2021». YouTube. Esteka: <https://www.youtube.com/watch?v=cdC3EuuLn-w&t=2016s>

SAID, E. W., JHALLY, S. & Media Education Foundation. (1998). *Edward Said on Orientalism*. Toronto: Kinetic Video. YouTubean ikusgai. Esteka: [https://www.youtube.com/watch?v=fVC8EYd\\_Z\\_g&t=2123s](https://www.youtube.com/watch?v=fVC8EYd_Z_g&t=2123s)

### Resumen

Este artículo recoge el ejercicio de reflexión de una traductora blanca y vasca, que nace a partir del debate internacional generado por la traducción de la obra de Amanda Gorman. Este es un trabajo realizado con la intención de abrir un espacio para debatir sobre los conceptos, privilegios y relaciones de poder que el caso Gorman ha cuestionado y puesto en evidencia; un trabajo que repara tanto en el marco general de la traducción, como en las características específicas de Euskal Herria. Lo que en principio iba a ser una memoria sobre la traducción de June Jordan se ha convertido en una reflexión compleja, y así, el artículo plantea un ejercicio para enfrentarse a las implicaciones que tiene ser una traductora blanca y occidental que trabaja con una lengua no hegemónica.

### Résumé

Cet article propose l'exercice de réflexion d'une traductrice blanche basque, suite au débat international suscité par la traduction de l'œuvre d'Amanda Gorman. Il a pour but d'ouvrir le débat sur les concepts, privilèges et relations de pouvoir que l'affaire Gorman a mis en évidence et a remis en cause ; un travail qui s'inscrit à la fois dans le cadre général de la traduction, et dans les spécificités du Pays basque. Ce qui devait à l'origine être un mémoire sur le fait de traduire June Jordan est devenu une réflexion complexe, et donc, l'article propose un exercice pour se confronter à ce qu'implique le fait d'être une traductrice blanche et occidentale qui travaille avec une langue non-hégémonique.

### Abstract

This article is an exercise in reflection by a white Basque translator, in the wake of the international debate generated by the translation of Amanda Gorman's work. This is thus a work designed to open a space for discussion about the concepts, privileges and power relations that the Gorman case exposes and questions; a work that examines both the general framework of translation and the specific characteristics of the Basque Country. What was initially intended to be a report on the translation of June Jordan thus becomes a complex reflection, and the article effectively proposes an exercise in looking at what it means to be a white Western translator who works with a non-hegemonic language.